



# ADMINISTRAZIO- ISILTASUNA

Xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx!



# Administrazio-isiltasuna



Ebazpen-beharra



Ebazpen-epeak



Administrazio-isiltasuna: zer da?



Isiltasun positiboa alde batek eskatuta hasitako prozeduretan



Isiltasun negatiboa



Isiltasun bikoitza



Isiltasun negatiboa edo iraungipena ofizioz hasitako prozeduretan.



Administrazioaren betebeharrak



Erantzukizunak



# Ebazpen-beharra

Gai honi buruz indarrean dagoen araudiak (1992ko azaroren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena —HAAJAPE—) bermatzen du Administrazio Publikoek prozedura guztiak ebazteko eta jakinarazteko lege-betebeharra dutela.

Herri Administrazioak behartuta daude prozedura GUZTIEI dagokien ebazpena egitera eta jakinaraztera.

Betebehar hori eska daiteke Administrazioari, prozedura hasitako modua (ofiziozkoa edo alde batek eskatua) eta betebehar hori ez betetzetik eratorritako lege-ondorioak kontuan hartu gabe.



# Ebazpen-beharraren salbuespenak

Legeak 2 salbuespen aurreikusten ditu: prozedura itun edo hitzarmen bidez amaitzen bada eta Administrazioari aldeztu aurretik jakinarazteko betebeharrarekin soilik lotuta dauden eskubideak gauzatzeari buruzkoa bada.

Kontuz! Bi salbuespetan, Administrazioa ez dago behartuta berariaz ebazpena egitera:

1. Prozedura itun edo hitzarmen bidez amaituz gero.
2. Administrazioari aldeztu aurretik jakinarazteko betebeharrarekin soilik lotuta dauden eskubideak gauzatzeari buruzkoa izanez gero.




# Ebazpen-epeak

Lege-betebehar hori bete egin behar da dagokion prozeduraren araudi erregulatzailean aurreikusitako epean, eta epe hori aurreikusita ez badago, berriz, 3 hilabeteko epean, prozedura hasten denetik kontaktzen hasita.

Ebazpen-epea:

- Arau orokorra: prozeduraren araudi erregulatzaileak ezarritako epea.  
*-Gehienez ere 6 hilabeteko epea; betiere, Europako Erkidegoko araudi baten edo lege baten mailako arau batek epe luzeagoa ezartzen ez badu.*
- Arau zehatzik ez badago, ordezeko epea honako hau da:  
**3 hilabete**



# Ebazpen-epea malgutzea

Ezarritako epea, edo 3 hilabeteko ordezeko epea, bertan behera utzi daiteke interesatuari aldez aurretik jakinarazi ondoren, HAAJAPEk aurreikusten dituen zenbait baldintza kontuan hartuta (hala nola zenbait txosten, zuzenketa eta abar).

**Kontuz! Salbuespen gehiago**

Erabakiak hartzeko erabakigarriak diren elementuak (txostenak, froga teknikoak...) falta direlako ebazpen-epea gaitzera behartzen duten baldintzak gertatuz gero.


Beharrezkoak diren giza bitartekoak eta bitarteko materialak gaitu ahal izango dira, aurkeztutako eskaeren kopuruak ebazpena egiteko eta epe barruan jakinarazpena egiteko betebeharra ez betetzea ekar baditzake.

**Salbuespen gisa, epea handitu daiteke, Administrazioaren eskura dauden bitartekoak agortu ondoren; horretarako, interesatuari emango zaio horren berri eta arrazoiak adieraziko zaizkio.**




# Administrazio-isiltasuna: zer da?

Ebazpena egiteko eta epe barruan jakinarazteko betebeharra ez betetzeak administrazio-isiltasunerako bide ematen du. Lege-ondorioak HAAJAPEn sailkatzen dira, prozedura hasitako modua kontuan hartuta.



Hori guztia ikusita, eta aurreikusitako salbuespenik gabe, ADMINISTRAZIO-ISILTASUN gisa ezagutzen da Herri Administrazioak ebazpena ez egitea eta epe barruan jakinarazpena ez egitea.



# Administrazio-isiltasuna

Isiltasuna **positiboa** edo **negatiboa** izan daiteke


## Isiltasun positiboa:

Interesatuari bere eskaera onartu dela ulertzeko bide ematen dion ustezko administrazio-egintza.

## Isiltasun negatiboa:


Ondorio prozesalen lege-fikzioa, interesatuari bere eskaera ez dela onartu ulertzeko bide ematen diona, eta, beraz, helegitea aurkezteko.






# Isiltasun +

**Interesatutako pertsonak eskatuta hasitako prozeduretan**, epe barruan ebazteko betebeharra ez betetzeak, oro har, interesatua legitimatzen du eskaera hori onartutzat hartzeko, administrazio-isiltasunagatik. Ebazpena epe barruan egin ez arren, legeak ulertzen du isiltasun horrek prozedura amaitzen duen egintza baten ondorioak dituela, ebazpen baten gisa, hain zuzen.



Isiltasun positiboa: Administrazioak pertsona interesdunak eskatuta hasitako prozedurak epe barruan ebazten ez dituzenean gertatzen da.




# Salbuespenak

Batetik, Lege edo Erkidegoko Zuzenbide mailako arau batek kontrakoa esaten duen kasuak salbuesten dira. Bestetik, berriz, egintzei edo xedapenei kontra egiteko prezedurak (administrazio-helegiteak), Konstituzioan aitortutako eskaera-eskubidea gauzatzeko prozedurak eta isiltasunak eskatzaileari jabari publikoaren edo zerbitzu publikoaren arloko gaitasunak eskualdatzea ekarriko luketen kasuak salbuesten dira.

**Kontuz!**

- Lege edo Erkidegoko Zuzenbide mailako araua.
- Administrazio-helegiteak.
- Eskaera-eskubidearen gauzatzea.
- Jabari edo zerbitzu publikoaren arloko gaitasunak eskualdatzea ekartzen duten kasuak.



# Isiltasun -


Honako kasu hauetan, ez da isiltasun positiboa gertatuko, isiltasun negatiboa baizik:

Lege edo Erkidegoko Zuzenbide mailako arau batek isiltasun positiboaren aurkakoa ezartzen badu.

Recursos administrativos

Konstituzioan onartutako eskaera-eskubidea.

Isiltasunak eskatzaileari jabari edo zerbitzu publikoaren arloko gaitasunak eskualdatzea ekartzen duten kasuak.




# Isiltasun -

Salbuespen horietan gaitzespena gertatzen da administrazio-isiltasunagatik, edo, bestela esanda, isiltasun negatiboa; hortaz, interesatuak aukera dauka administrazio- edo jurisdikzio-helegite bat aurkezteko, hala badagokio.

Azkenean!  
Definizioa:

ISILTASUN NEGATIBOA= gaitzespena, administrazio-isiltasunagatik.

Isiltasun negatiboa gertatuz gero, interesdunak administrazio- edo jurisdikzio-helegite bat aurkez dezake.




# Isiltasun bikoitza

Isiltasunagatiko gaitzespenaren aurkako gorako errekurtoa jarriz gero, ebazpen-betebeharra berriro ere ez betetzearen ondorioa gorako errekurtoa onartzea da, adminstrazio-isiltasunagatik (isiltasun bikoitza).

Ziriari zotza sartuz

Administrazio-isiltasun negatiboa badago, interesatuak helegitea aurkezten badu eta, berriro ere, Administrazioak epe barruan ebazten ez badu, interesatuaren alde onartuko da, isiltasunagatik. Hortaz, errekurtoa onartuko da, ISILTASUN BIKOITZAGATIK.

**I. NEGATIBOA + ISILTASUNA = I. POSITIBOA**




# Isiltasun -

Administrazioak ofizioz hasitako prozeduretan, hau da, Administrazioak jarduerak hastea eragiten duen alde baten eskaerarik gabe, administrazio-isiltasunaren ondorioak honako hauek izan daitezke, kasuaren arabera:


gaitzespenezkoak; eskubideak aitortzeko edo eratzeko prozedurak edo banan-banako beste egoera juridiko batzuk izanez gero.

prozedura iraungitzea; Administrazioak eskumen zigortzaileak edo esku-hartzeko eskumenak erabiltzen dituen prozeduretan, aurkako edo kargako ondorioak sor ditzaketenak, hain zuzen. Kasu horietan, ezarritako berariazko ebazpenak iraungipena adieraziko du, jarduerak artxibatzearekin (esaterako, diziplinazko prozedurak, diru-laguntzak atzera botatzea, etab.).



# Isiltasun + edo -

Hortaz, oro har, esan daiteke, salbuespenetan izan ezik, interesatuak eskatuta hasitako prozeduretan **isiltasun positiboak** agintzen duela, eta ofizioz hasitakoetan, berriz, **isiltasun negatiboak** edo iraungipenak.



# Administrazio-isiltasuna


Aipatutako ondorioekin administrazio-isiltasun gertatu bada ere, ebazpen-betebeharra ez da desagertzen. Betebehar hori betetzeko Administrazioak eman beharreko ebazpenaren edukia mugatzen du legeak.

Onartu egin bada isiltasunagatik, ebazpena egin beharko du ebatzi gabeko eskaera halabeharrez onartuz, Isiltasun Positiboa berretsiz.

Bestela, gaitzetsi egin bada isiltasunagatik, ebazpena aldekoa edo gaitzespenekoa izan daiteke, Adminstrazioaren erabakiaren arabera.

Ofizioz hasitako prozeduretan salbu,  
aurkako edo kargako ondorioekin;  
horietan, administrazioak prozeduraren  
iraungipena adierazi behar du.






# Administrazioaren betebeharrak

HAAJAPEk beste betebeharrak batzuk ezartzen dizkie administrazioei, herritarrek erregimen hori behar bezala uler dezaten:

Oro har, ebazten dituen prozeduren zerrenda argitaratu behar du, horien gehienezko iraupen-epeak eta administrazio-isiltasunaren ondorioak adieraziz.

Zehazki, **interesatuak eskatuta hasitako prozeduren kasuan**, aurkeztutako idatzi guztiak jaso izanaren berri eman behar du, ebazpenaren gehienezko epea eta administrazio-isiltasunaren ondorioak edo zentzua jakinaraziz, epe barruan ebazten eta jakinarazten ez bada, eta, **ofizioz hasitako kasuetan**, prozedurari hasiera ematen dion administrazioaren egintzan.



# Erantzukizunak

HAAJAPEk aurreikusten du diziplinazko erantzukizunak eskatu behar zaizkiela gaien bulegoaren ardura duten langileei, baita prozedurak bideratzeko eta ebazteko ardura daukaten administrazio-organoetako titularrei ere.

Horrek ez du alde batera uzten bestelako erantzukizunak eskatzea; adibidez, Administrazioak berak erreklamatzeko langileei bere ondasunetan eta eskubideetan sortutako kalteak eta galerak, epe barruan ebazteko betebeharra ez betetzeagatik, mina, errua edo arduragabekeria larria gertatuz gero.



**EUSKAMPUS**  
Nazioarteko Bikaintasun Campusa  
Campus de Excelencia Internacional